

Tutoretzapeko ikerketen inplikazio etikoak **(GRALa, MALa eta doktorego tesia)**

Gomendioen dokumentua

Gizakiekin eta Haien Datu nahiz Laginekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordea (GIEB-UPV/EHU)

Animaliekin Egindako Esperimentaziorako Etika Batzordea (AEEB-UPV/EHU)

Agente Biologikoekin edo GEOekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordea (ABIEB-UPV/EHU)

Gomendioen egilea: Susi Marcos Muñoz. Gainbegiratzailea: Gizakiekin eta Haien Datu nahiz Laginekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordea (GIEB).

Leioa, 2024ko urtarrila

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	2
Siglak eta akronimoak.....	3
Glosarioa.....	4
TUTORETZAPEKO IKERKETA: SAILKAPENA, INPLIKAZIO ETIKOEN ARABERA	6
Tiak idazteko gomendio orokorrak.....	6
TUTORETZAPEKO IKERKETAREN ALDERDI ETIKOAK: GIZAKIAK, HAIEN DATUAK ETA LAGINAK ERABILTZEA	7
GRALen, MALen EDO DOKTOREGO TESIEN ALDERDI ETIKOAK: ESPERIMENTAZIORAKO ANIMALIAK ERABILTZEA	11
GRALen, MALen EDO DOKTOREGO TESIEN ALDERDI ETIKOAK: AGENTE BIOLOGIKOAK ETA GEO-AK MANIPULATZEA	12
ERANSKINAK	13
I. eranskina. Tia barne hartzen duen eta AEED/ABIEBen ebaluazioa daukan ikerketa proiektuaren zuzendariaren gutunaren eredia.....	14
II. eranskina. Tiaren zuzendari edo tutorearen oniritziaren eredia.	15
III. eranskina Informazio orria	16
V. eranskina. Materiala lagatzeko dokumentuaren eredia.	17
VI. eranskina. Datuak lagatzeko dokumentuaren eredia.....	19
BIBLIOGRAFIA	20

AURKEZPENA

Dokumentu honetan azalduko ditugu UPV/EHU-n egiten diren tutoretzapeko ikerketen (aurrerantzean, TI) arteko ezberdintasunak, haietan erabiltzen diren materialen, metodologiaren eta lanabesen arabera eta haien inplikazio etikoak kontuan hartuta, ikerketetan pertsonen parte hartuko duten edota haien lagin nahiz datuak erabiliko diren, esperimenterako animaliak baliatuko diren edota agente biologikoak eta genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) manipulatuko diren.

Jarraian azalduko dugu etika batzordeek noiz ebaluatu behar dituzten TIak, nola planteatu behar den ebaluatzeko eskaera, eta ikasleek zer alderdi deskribatu behar dituzten eta nola. Gainera, TIaren ebaluazio etikoa eskatzeko aurkeztu behar diren dokumentuen ereduak ere eskainiko ditugu.

TI batean gizakiak, haien datuak edo laginak erabili behar badira, edota esperimenterako animaliak edo agente biologikoak eta genetikoki eraldatutako organismoak, ezinbestekoa izango da kasuan kasuko etika batzordearen aldeko txostena izatea. Txostena lana egiten hasi aurretik eskatu beharko da. Ikergaiaren arabera, honako etika batzorde hauek bereizten dira Euskal Herriko Unibertsitatean: GIEB (Gizakiekin eta Haien Datu nahiz Laginekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordea), AEEB (Animaliekin Egindako Esperimenterako Etika Batzordea) eta ABIEB (Agente Biologikoekin edo GEOekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordea).

Jarduera batean erabili behar badira gizakiak, haien datuak eta laginak, edo esperimenterako animaliak edo agente biologikoak eta genetikoki eraldatutako organismoak, jarduera horrek inplikazio etikoak dauzka eta ezinbestekoa da ebaluazio eta jarraipen batzorde batek haren ebaluazio etikoa egitea. Inplikazio etikoen garrantziaren arabera, bi motatako TIak bereiz daitezke: inplikazio etiko adierazgarriak dituztenak eta inplikazio etiko ez-adierazgarriak dituztenak.

Inplikazio etiko adierazgarriak dituzten TIetan, ikasleak ebaluazioa eskatu beharko dio UPV/EHUko kasuan kasuko etika batzordeari. Eskaria FormulariosCEID (<https://www.ehu.eus/formulariosCEID/>) aplikazioaren bidez egin behar da. Aplikazioan sartzeko, eskaria egingo duenak bere LDAP eta pasahitza sartu behar ditu. Pertsona hori izango da lanaren arduraduna etika batzordearen aurrean. TIa egingo duen ikaslea bera izan daiteke eskatzailea, edo lanaren tutore edo zuzendaria.

Adierazgarriak ez diren inplikazio etikoak dituzten TIen kasuan, ikasleak ziurtagiri bat eskatu beharko dio Etika Zerbitzuari formulario hau betez: SOLICITUD DE CERTIFICADO de ÉTICA.

Siglak eta akronimoak 14/2007 IBL: Ikerketa Biomedikoari buruzko Legea.

ABIEB: Agente Biologikoekin edo GEOekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordea.

ABIEB-AT: Agente Biologikoekin edo GEOekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordearen aldeko txostena.

AEEB: Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordea.

AEEB-AT: Animaliekin Egindako Esperimentaziorako Etika Batzordearen aldeko txostena.

BID: Baimen informatuaren dokumentua.

DBO: Datuak babesteko ordezkaria.

DT: doktorego tesia

DTA: Data Transfer Agreement.

E-mIBE: Euskadiko Medikamentuen gaineko Ikerkuntza Batzorde Etikoa

GEO: genetikoki eraldatutako organismoa.

GIEB: Gizakiekin eta Haien Datu nahiz Laginekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordea.

GIEB-AT: Gizakiekin eta Haien Datu nahiz Laginekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordearen aldeko txostena.

GRAL: Gradu Amaierako Lana.

IEB: Ikerketako Etika Batzordea

IRI: irakasle-ikertzaileak.

M10: Gizakiekin eta Haien Datu nahiz Laginekin Egindako Ikerketetarako Etika Batzordeak ebaluazioa egiteko memoria.

M20: Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordeak ebaluazioa egiteko memoria.

M30: Agente Biologikoekin edo GEOekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordeak ebaluazioa egiteko memoria.

MAL: Master Amaierako Lana

MTA: Material Transfer Agreement – Laginak lagatzeko dokumentua.

TEKAZEL: teknikariak eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileak.

TI: tutoretzapeko ikerketa.

Glosarioa

Dokumentu hau errazago ulertze aldera, hona hemen zenbait argibide:

Baimen informatua: dokumentu bat da, biltzen duena iturri subjektuari nahitaez eman behar zaion informazioa hartuko zaion lagin motaz, eskatuko zaizkion datu pertsonalez eta haiei emango zaien tratamenduaz. Dokumentua sinatzean subjektuak baimena ematen du lagin edo datu horiek horrela erabiltzeko. Dokumentua hizkera ez-teknikoan idatzita egon behar da, parte hartzaileek urrez ulertzeko moduan. Honako hauek azaldu behar ditu, besteak beste: ikerketaren helburua, laginak edo datuak gorde ahal izango diren ala ez, laga ahal izango diren ala ez, nola babestuko diren, betiere konfidentzialtasuna bermatuta.

Datu pertsonalak: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarrien gaineko edozein informazio (zenbakizkoa, alfabetikoa, grafikoa, argazkizkoa, akustikoa edo bestelakoa).

DTA: materiala transferitzeko akordioa (ingelesez, Data Transfer Agreement), zeinaren bidez arautzen baitira datuen lagapena eta datuen emaile nahiz hartzailearen betebeharrak.

Errekrutatzea: ikerketa proiektu batean iturri subjektu gisa parte hartuko duten pertsonak erakartzeko prozesua edo ekintza multzoa. Prozesu horren parte dira, besteak beste, informazioa ematea proiektuaren eta subjektuen balizko parte hartzearen inguruan, zalantzak argitzea eta subjektuen baimena lortzea.

Esku hartzea: esperimentazioaren subjektu den gizakiak zuzenean parte hartzea behar duten lanak, lanabesak edo metodologiak.

FormulariosCEID: aplikazio informatiko bat da. Haren bidez, ikerketen arduradunek azaltzen diete UPV/EHUn ikerketaren etika ebaluatzen duten kideei zergatik den beharrezkoa ikerketa, irizpide etiko nahiz legalak betetzen dituela eta metodologia aproposa dela. Gainera, gida gisa ere balio du eskatzailearentzat, aukera ematen baitu ikerketan gatazka etikoa eragin dezaketen alderdiak berrikusteko, baita arau nahiz legeek ezartzen dituzten baldintzak betetzen diren egiaztatzeko ere.

Giza jatorriko material biologikoa: gizakien lagin biologikoak eta giza jatorriko hondakin medikoak dira; biobankuetan edo bildumetan gordetzeko erauzten eta biltegitratzen dira, ondoren esperimentazio prozesuetan manipulatzeko. Odola, fluidoak, zelulak, DNA, RNA, ehunak, etab. izaten dira, eta iturri subjektuaren eduki genetikoari buruzko informazioa izan dezakete (bereziki babestutako datuak). Horrelako materialek aparteko arreta eta zaintza behar dute.

Lagapena: material biologikoaren gaineko eskubideak edo jabetza beste pertsona bati transferitzea. Materialaren jatorria edozein izan daiteke: gizakia, animalia edo begetala.

Lagin biologikoa: izaki bizidun baten zati edo atala, haren adierazgarritzat jotzeko aukera ematen duten metodoen bitartez hartutakoa. Honako hauek izan daitezke: gizaki, animalia edo landareen fluidoak, ehunak, zelulak, DNA, RNA eta proteinak. Horietakoak dira, halaber, mikroorganismoak, genetikoki eraldatutako organismoak, endoparasitoak eta zelula kultiboak.

Material biologikoa: jatorri organikoa duten elementu, substantzia edo produktuak edo inguruneak (ura, lurra, elikagaiak, hondakinak, etab.), kutsatuta egon daitezkeenak edo agente infekziosoen kultibo ingurune izan daitezkeenak, eta, hortaz, gaixotasunen iturri. Lagin biologikoak izan daitezke (ehunak, odola, fluidoak...), edo kultiboak, edo edozein hondakin organiko, berdin giza, animalia edo landare jatorria izan.

MTA: materiala transferitzeko akordioa jasotzen duen dokumentua (ingelesez, Material Transfer Agreement), zeinaren bidez arautzen baitira material biologikoen lagapena eta datuen emaila nahiz hartzailearen betebeharrak.

Tutoretzapeko ikerketa: ikasketen parte gisa egiten diren ikerketa lanak dira; pertsona kualifikatu batek gainbegiratzen ditu, lana bideratzeaz arduratzen delarik. UPV/EHUn, beste unibertsitate eta ikerketa zentro batzuetan bezala, halakoak dira gradu amaierako lanak (GRAL), master amaierako lanak (MAL), doktorego tesiak (DT) eta bestelakoak.

Tutoretzapeko ikerketa: ikasleek pertsona kualifikatu baten gidaritzapean egiten dituzten ikerlanak. UPV/EHUn, beste unibertsitate eta ikerketa zentro batzuetan bezala, mota honetako ikerketak dira gradu amaierako lanak (GRAL), master amaierako lanak (MAL), doktorego tesiak (DT) eta bestelakoak.

TUTORETZAPEKO IKERKETA: SAILKAPENA, INPLIKAZIO ETIKOEN ARABERA

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) ikasleek unibertsitate aldiaren bi unetan egin ditzakete irakasle-ikertzaileek (IRI) gidatutako ikerketak:

1. prestakuntza akademikoaren aldiaren, Gradu Amaierako Lana (GRAL) eta Master Amaierako Lana (MAL) egitean.
2. ikerketarako prestakuntzaren aldiaren, doktorego tesia (DT) egitean.

Mota batean zein bestean, ikergaiak direnean gizakiak edota haien lagin nahiz datuak, esperimentaziorako animaliak, edo agente/material biologikoak nahiz genetikoki eraldatutako organismoak (GEO), ikerketak inplikazio etikoak dauzka.

Gomendio hauetan zenbait TI mota azaltzen dira. Etikaren ikuspegitik, TIak bitan banatzen dira: inplikazio etikorik ez duten TIak eta inplikazio etikoak dituzten TIak. Inplikazioak, bestalde, adierazgarriak edo ez-adierazgarriak izan daitezke.

TIak idazteko gomendio orokorrak

Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) TI bat egiten ari diren guztiei gomendatzen die honako alderdi hauek kontuan izan ditzatela lana idazteko orduan:

- (i) UPV/EHUren erakunde irudia eta EHU tipografia erabiltzea, erakunde gisa identifikatzen baikaituzte.
- (ii) Hizkera inklusiboa erabiltzea.
- (iii) Genero ikuspegia kontuan hartzea, ikerketan gizakiak, haien datuak eta laginak erabiltzen diren guztietan. Sexu edo genero aldagaiak kontuan hartu beharko dira, bai metodologiaren diseinuan, bai emaitzen azterketan, eta ahalegina egin beharko da beti emaitzak sexuaren arabera bereizita aurkezteko. Horrela egin ezean, horretarako arrazoi zientifikoak azaldu beharko dira.

TUTORETZAPEKO IKERKETAREN ALDERDI ETIKOAK: GIZAKIAK, HAIEN DATUAK ETA LAGINAK ERABILTZEA

Tlen adierazgarritasun etikoari dagokionez, eta GIEB-UPV/EHUK (Euskal Herriko Unibertsitatean Gizakiekin eta Haien Datu nahiz Laginekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordeak) ebaluatu behar dituen ala ez zehazteko, TIak bi kategoriatan bereizten dira:

1. **INPLIKAZIO ETIKORIK EZ DUTENAK:** Horietan gizakiek ez dute parte hartzen eta haien datu edo laginik ez da tratatzen. Halakoak dira, adibidez, azterketa bibliografikoak, inplementatzen ez diren esku hartzeen diseinua, analisi historikoak, kasuen konparazioa etab.

Aukera horietako batean ere ez da etika ebaluaziorik egin behar (hau da, horrelakoetan ez da dagokion etika batzordearen aldeko txostenik behar, ezta ziurtagiri etikorik ere).

2. **INPLIKAZIO ETIKOAK DITUZTENAK:** TI horietan gizakiek hartzen dute parte, edo haien datu nahiz laginak erabiltzen dira. Inplikazio etikoen garrantziaren arabera, bi ikerketa mota bereizten dira: adierazgarriak ez diren inplikazio etikoak dituztenak eta inplikazio tekniko adierazgarriak dituztenak.

2.1. ADIERAZGARRIAK EZ DIREN INPLIKAZIO ETIKOAK DITUZTENAK.

Horrelako TIek, erabilitako metodologia dela eta, ez dute dagokion batzordearen aldeko txostenik behar, baina ziurtagiri etikoa behar dute, GIEB-UPV/EHUK berretsi beharko duena.

Atal honetan hauek bereizten dira:

- 2.1.1. **Inkesta edo galdetegi anonimo bat sortuz eta pasatuz** egiten den lana, baina identifikazio daturik biltzen ez duena. **Errekrutatzea zeharkakoa da**, eta hortaz ez dago modurik parte hartzen duten pertsonak identifikatzeko (kartel fisikoen edo aplikazio telematikoen, posta zerrenden eta abarren bidez bilatzen da jendea). Datuak Babesteko Espainiako Agentziak Microsoft forms erabiltzea gomendatzen du, parte hartzaileen anonimotasuna gordetzen baitu.

Adibidea: Jasangarritasunari buruzko inkesta, Euskal Herriko Unibertsitateko IRI, TEKAZEL eta ikasleei zuzendua, inolako datu pertsonalik jaso gabe (anonimoa) eta "Microsoft Forms" tresna erabiliz (inkesta jasotzen duenak ez daki nork bidali duen); errekrutatzea, Euskal Herriko Unibertsitateko iragarki taularen bidez (zeharkako errekrutatzea).

Ikasleak SOLICITUD DE CERTIFICADO ÉTICO izeneko inprimakia beteko du, honako dokumentazio hau erantsita:

- galdetegi edo inkestaren **gidoia**.
- **Informazio orria** (III. eranskina). Haren bitartez egiten da errekrutatze anonimoa eta *zeharkakoa*. Testu hau inkestaren hitzaurrea izango da. Gutxienez informazio hau jasoko du: ikaslearen izen-abizenak, zuzendariaren izen-abizenak, saila, lanaren izenburua, helburuen laburpentxo bat, inkesta edo galdetegiaren deskribapena (galdera kopurua eta galdera motak, eta hari lotutako arriskuen azalpena).

- Zuzendari edo tutorearen **oniritzia** (II. eranskina), ziurtagiri etikoa eskuratzeko bidaltzen den dokumentazioari emana.

2.1.2. **Lagatako datu kliniko anonimoak** erabiliz egiten den lana. Datuok izan daitezke beste ikerketa batekoak edo beste prozesu batean bildutakoak.

1. adibidea: ikerketa estatistiko bat egitea, etxebizitza babestuei eta eraginkortasun energetikoari buruzko ikerketa proiektu batetik eskuratutako datu anonimoak erabiliz.

2. adibidea: kirol talde jakin bateko kideek izandako lesioen gaineko ikerketa egitea, klubak emandako datu anonimoak erabiliz.

Ikasleak SOLICITUD DE CERTIFICADO ÉTICO izeneko inprimakia beteko du, honako dokumentazio hau erantsita:

- **Materiala/datuak lagatzeko dokumentua** – Data Transfer Agreement – DTA (V. eranskina), bertan adierazita nork lagatzen duen informazioa (langilearen izen-abizenak eta erakundea), zer lagatzen duen (kopurua eta ezaugarriak), nori lagatzen dizkion (ikaslearen izen-abizenak) eta zertarako (lanaren izenburua eta datuak erabiltzearen helburua).
- Zuzendari edo tutorearen **oniritzia** (III. eranskina), ziurtagiri etikoa eskuratzeko bidaltzen den dokumentazioari emana.

Lagatako datuak ospitale/osasun zentroetatik badatoz eta haietariko batzuk osasunari buruzko datuak badira, ziurtagiri etikoaren eskaria egin beharko zaio ospitale/osasun zentro horretako Ikerketako Etika Batzordeari edo, lana zentro askotako datuekin egingo bada, Euskadiko Medikamentuen Gaineko Ikerkuntza Batzorde Etikoari (E-mIBE).

2.1.3. **Kasuen eta deliberazio prozesuen analisisian oinarritutako GOALak** Graduondoko Amaierako Lanak (GOAL) normalean profesionalek egiten dituzte, beren esperientzia profesionaletik abiatuz. Lan horietako iturri subjektuak guztiz anonimoak dira, ez baita inongo daturik eman behar ez pertsonaz ez haren inguruneaz.

Ikasleak SOLICITUD DE CERTIFICADO ÉTICO izeneko inprimakia beteko du, honako dokumentazio hau erantsita:

- **Baimen informatuaren dokumentuaren eredia (BID)**. Analizatuko den kasua dagokion pertsonak sinatu beharko du. Lana datu anonimoekin egin arren, pertsonaren baimena behar da bere datuak ikerketan erabiltzeko.
- Erakundearen baimena, alegia, ikasleak **kasuaren eta deliberazio prozesuaren analisisian oinarritutako GOALa** egingo duen entitatearena.
- Zuzendari edo tutorearen **oniritzia** (II. eranskina), ziurtagiri etikoa eskuratzeko bidaltzen den dokumentazioari emana.

2.1.4. **Curriculumeko kanpoko praktika akademikoetan bildutako datuez** egiten den GRALa. Practicum graduoko ikasketa planaren ezinbesteko osagaia da, eta arautegi espezifiko batez gobernatzen da. UPV/EHUk eta praktikak egiten diren zentro lankideek erdibana dituzte ardurak. Lanaren inplikazio etikoei

dagokienez, ikasleek bete beharreko baldintza izango da konfidentzialtasuna zaintzea, bai erakunde edo zentro lankidearena eta bai praktikan eskuratutako datuena, hala praktikaren aurretik nola praktika egin bitartean eta hura amaitu ostean, identifikazioa erabat eragotziz. GRALa ez da izango beste esku hartze bat egitea, ezpada Practicumaren gidan zehazten diren lanak egitean eskuratutako datuak erabiltzea.

Kasu honetan ez zaio ziurtagiri etikoa eskatu behar Etika Zerbitzuari.

2.2. ADIERAZGARRIAK DIREN INPLIKAZIO ETIKOAK DITUZTEN LANAK.

Ikerketa hauek GIEB-UPV/EHUren ebaluazioa eta aldeko txostena behar dute. Ikasleek curriculumeko praktiketan egindako lanetan, gizakien esku hartzerik egon bada edota haien datuak edo laginak erabili badira. lan horiek ere kategoria honetan sartzen badira, .

Adibidea: lehen hezkuntzako lehen mailako hurrek fruta eta barazkiak kontsumitzeko dituzten ohiturei buruzko azterlana, ikasleak curriculumeko praktikak egin dituen ikastetxea erreferentzia hartuta. Esku hartzea izango litzateke ikasgelan umeei inkesta egitea, hori ez baita agertzen Practicumaren gidan. Kasu honetan ikasleen legezko ordezkarien eta ikastetxearen BIDak beharko lirateke, GIEB-UPV/EHUk ebaluazioa egin dezan.

Ezinbesteko baldintza izango da GIEB-UPV/EHUri ebaluazioa eskatzea, FormulariosCEID aplikazioaren bitartez, eta lana zuzentzen duen pertsonak eskaria berrikusi beharko du bere osoan. Eskabidea egin eta GIEB-UPV/EHUri bidaltzeko (ebaluazioa egin dezan), komeni da gomendioen dokumentu hau irakurtzea: "Escenarios en investigación con seres humanos, sus datos y sus muestras".

Honako dokumentu hauek (ikus ereduak gomendio dokumentu honetan) aurkeztu beharko dira:

- M10 memoria (ebaluazio eskabidea).
- Ikastetxearen baimena; ikastetxearen baimena gehi subjektuak errekrutatzen laguntzeko eskaintza; edo lankidetzaren onarpena.
- Datuen tratamenduaren adierazpena. GRALaren, MALaren edo doktorego tesiaren zuzendaria izango da datuen tratamenduaren barne arduraduna.
- Baimen informatuaren dokumentua, parte hartzaileek edo, adingabeak badira (adibide honetan, kasu), haien gurasoek/legezko arduradunek sinatutakoa.
- Galdetegien gidoia edo erreferentziak, dagoeneko baliozkotuta badaude.
- GRALaren, MALaren edo doktorego tesiaren zuzendariaren oniritzia, GIEB-UPV/EHUrak ebaluatzeko bidalitako dokumentazioari emana.

Hona hemen taula batean laburtuta zein dokumentu lortu behar den gizakiak edo haien datu nahiz laginak erabiltzea dakarten GRALek, MALek edo doktorego tesiek ebaluazio etikoa gainditzeko.

KATEGORIA	BETEKIZUN ETIKOAK
1. kategoriakoak (inplikazio etikorik ez dutenak)	Bat ere ez
2.1.1 kategoriakoak (adierazgarriak ez diren inplikazio etikoak dituztenak). Galdetegi anonimoa, zeharkako errekrutatzea.	
2.1.2 kategoriakoak (adierazgarriak ez diren inplikazio etikoak dituztenak). Beste ikerketa batetik lagatako datu anonimoak.	Ziurtagiri etikoa. Honako esteka honen bitartez eskatu behar da: https://www.ehu.eus/es/web/forms/shared/-/form/45511960
2.1.3 kategoriakoak (adierazgarriak ez diren inplikazio etikoak dituztenak). Kasuen eta deliberazio prozesuen analisisian oinarritutako GOALak	
2.1.4. kategoriakoak (konfidentzialtasun betebeharra dutenak).	Bat ere ez
2.2 kategoriakoak (inplikazio etiko adierazgarriak dituztenak), aurretik aldeko txostenik jaso ez dutenak.	GIEB-UPV/EHUren aldeko txostena. FormulariosCEID aplikazioaren bitartez eskatu behar da.

GRALen, MALen EDO DOKTOREGO TESIEN ALDERDI ETIKOAK: ESPERIMENTAZIORAKO ANIMALIAK ERABILTZEA

Hain dira garrantzitsuak animaliekin esperimentatzeak dituen konnotazio normatibo eta etikoak, non ezinbesteko betekizun diren honako hauek:

- ✓ esperimentaziorako animaliekin erabiliko diren prozedurak diseinatu eta aplikatuko dituzten pertsonen horretarako gaitasun ziurtagiria edukitzea, autonomia erkidegoko agintaritza eskudunak emana.
- ✓ Animaliekin egingo den ikerketa proiektuak AEEB-UPV/EHUren ebaluazioa gainditua izatea, eta, horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritza eskudunaren baimena –hau da, dagokion foru aldundiarena, proiektua non egingo den–.

Ondorioz, irakasle-ikertzaile (IRI) batek zuzendu behar du ikerketa, eta ez GRALa, MALa edo doktorego tesia egiten dabilen ikasle batek. Hori dela eta, AEEB-UPV/EHUren arabera, GRAL bat, MAL bat edo doktorego tesi bat esperimentaziorako animaliekin egiteko, ezinbestekoa da lan hori egotea animaliekin egingo den ikerketa proiektu baten babespean, eta ikerketa proiektu horrek aurretik izatea AEEB-UPV/EHUren aldeko txostena eta dagokion foru aldundiaren baimena.

Ikasleak SOLICITUD DE CERTIFICADO ÉTICO izeneko inprimakia beteko du, honako dokumentazio hau erantsita:

- lana bere baitan hartzen duen ikerketa proiektuaren arduradunaren gutuna, adierazten duena lana egingo dela AEEB-UPV/EHUren aldeko txostena duen proiektu baten babespean. Gutunean proiektuaren izenburua eta IIEB erreferentzia adierazi beharko dira.
- Tiko zuzendariaren oniritzia, ikasleak Etika Zerbitzuari ebaluatzeko bidalitako dokumentazioari emana.

GRALen, MALen EDO DOKTOREGO TESIEN ALDERDI ETIKOAK: AGENTE BIOLOGIKOAK ETA GEO-AK MANIPULATZEA

Agente biologikoak manipulatzeko eta GEOak modu konfinatuan erabiltzeko, ezinbestekoa da araudi zorrotz bat betetzea, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren menpe, Biosegurtasunaren Batzorde Nazionalaren menpe eta EAEko Biosegurtasunaren Batzordearen menpe dagoena. Betekizunen artean honako hauek daude:

- ✓ Arrisku biologikoetan prestakuntza duen pertsona batek diseinatu eta bete beharko ditu agente biologikoak manipulatzeko edo GEOen erabilera konfinatua dakarten prozedurak.
- ✓ Agente biologikoak manipulatzeko eta GEOak modu konfinatuan erabiltzeko instalazioek akreditatuta eduki behar dute dagokien babes maila (ministerioaren araudiak biosegurtasuna bermatzeko eskatzen duena, kasuan kasuko agente biologikoari edo GEOari lotutako arriskuen arabera).

Ondorioz, irakasle-ikertzaile (IRI) batek zuzendu behar du ikerketa, eta ez GRALa, MALa edo doktorego tesia egiten dabilen ikasle batek. Hori dela eta, ABIEB-UPV/EHUren arabera, agente biologikoak manipulatzeko eta GEOen erabilera konfinatua dakarren GRAL, MAL edo doktorego tesi bat egiteko, ezinbestekoa da lan hori egotea ABIEB-UPV/EHUren aldeko txostena daukan ikerketa proiektu baten babespean.

Ikasleak SOLICITUD DE CERTIFICADO ÉTICO izeneko inprimakia beteko du, honako dokumentazio hau erantsita:

- lana bere baitan hartzen duen ikerketa proiektuko arduradunaren gutuna, adierazten duena lana egingo dela ABIEB-UPV/EHUren aldeko txostena duen proiektu baten babespean. Gutunean proiektuaren izenburua eta IIEB erreferentzia adierazi beharko dira.
- TIko zuzendariaren oniritzia, ikasleak Etika Zerbitzuari ebaluatzeko bidalitako dokumentazioari emana.

ERANSKINAK

Jarraian aurkezten dira zenbait eredu, ikaslearentzat lagungarriak izan daitezkeenak Etika Zerbitzuari edo GIEB-UPV/EHUri ebaluazioa eskatzeko orduan, bere GRAL, MAL edo doktorego tesiaren inplikazio etikoen adierazgarritasunaren arabera.

- I. eranskina. TIta barne hartzen duen eta AEEB/ABIEBen ebaluazioa daukan ikerketa proiektuaren zuzendariaren gutunaren eredu.
- II. eranskina. TItaren zuzendari edo tutorearen oniritziaren eredu.
- III. eranskina. Informazio orria.
- V. eranskina. Datuak lagatzeko dokumentua.
- VI. eranskina. Materiala lagatzeko dokumentua.

I. eranskina. Tia barne hartzen duen eta AEEB/ABIEBen ebaluazioa daukan ikerketa proiektuaren zuzendariaren gutunaren eredia.



AEEB/ABIEB PROIEKTUAREN ARDURADUNAREN GUTUNA

Honen bidez, behean aipatzen den proiektuaren arduradunak ZIURTATZEN DU bere ardurapeko ikerketak AEEB/ABIEB-UPV/EHUren aldeko txostena daukala (ikus erreferentzia), eta ikasleak proiektu horren babespean egin duela bere tutoretzapeko ikerketa.

AEEB/ABIEB proiektuaren arduradunaren izen-abizenak:
.....

Fakultatea:

Saila:

AEEB/ABIEB proiektuaren izenburua:
.....

AEEB/ABIEB-UPV/EHU txostenaren erreferentzia:
.....Ikaslearen izen-abizenak:
.....

Ikaslearen TIaren izenburua:
.....

Lekua eta data:

II. eranskina. Tlaren zuzendari edo tutorearen oniritziaren eredu.



ONIRITZIA

Honen bidez tutoretzapeko lanaren zuzendari edo tutoreak ziurtatzen du gainbegiratu duela lana egingo duen ikasleak ziurtagiri etikoa eskatzeko bidali duen dokumentazio guztia eta egokia dela, lanaren inplikazio etiko ez-adierazgarriak kontuan hartuta.

Lanaren zuzenari edo tutorearen izen-abizenak:

.....

Fakultatea:

Saila:

Ikaslearen izen-abizenak:

Tutoretzapeko ikerketaren izenburua:

.....

Lekua eta data:

III. eranskina. Informazio orria



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

INFORMAZIO ORRIA

Dokumentu honetan adierazi beharrekoak:

ERAKUNDEAREN LOGOA (UPV/EHUrena, gure kasuan)

IKASLEAREN IDENTIFIKAZIOA

- Izen-deiturak
- Saila eta ikastegia
- Harremanetarako datuak: erakundeko helbide elektronikoa eta telefono zenbakia

LANAREN DESKRIBAPENA

- Izenburua eta lanaren zuzendari edo tutorearen izen-abizenak
- Proiektuaren laburpena

ESKU HARTZEEN DESKRIBAPENA

Inkesta edo galdetegiaren deskribapena: item kopurua eta mota, lanaren balizko arriskuak, eta inkesta/galdetegia egiteko behar den denbora.

Adierazi behar da borondatezkoa eta anonimoa dela lanean parte hartzea, eta eman behar da arduradunarekin harremanetan jartzeko aukera, emaitzak ezagutu nahi izanez gero.

V. eranskina. Materiala lagatzeko dokumentuaren eredia.

MATERIALA LAGATZEKO DOKUMENTUA

Honen bidez, beherago aipatzen den pertsonak materiala lagatzen dio tutoretzapeko ikerketa egingo duen ikasleari.

Materiala lagako duen pertsonaren datuak:

- Izen-abizenak:

.....

- Erakundea:

.....

Materialaren xehetasunak: deskribatu materiala eta zehaztu lagin kopurua eta zein egoeratan lagatzen diren (anonimizatuta, pseudonimizatuta, fresko, parafinatan, autoklabean gordeta etab.):

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Materiala eskuratzeko baimena eman duen etika batzordea:

.....
.....

Ikaslearen datuak:

Izen-abizenak:

.....

Lanaren

izenburua:

.....

Ikasleak konpromiso hauek hartzen ditu:

- ABIEB-UPV/EHUren aldeko txostena eskuratzea laginak UPV/EHUko instalazioetan manipulatzeko.
- Laginak aipatutako lana egiteko baino ez erabiltzea.
- Material/datuen jatorria aipatzea lanarekin lotura duten dokumentu guztietan, argitalpenak barne (halakorik balego).

Lekua eta data:

VI. eranskina. Datuak lagatzeko dokumentuaren eredia

DATU ANONIMOAK LAGATZEKO DOKUMENTUA

LAGAKO DIREN DATUEN ARDURADUNAREN IZEN-ABIZENAK jaun-andreak, ERAKUNDEAREN IZENA erakundeak, DATUAK LAGATZEN dizkio beherago aipatzen den ikasleari, ikerketa bat egiteko.

Hauek dira materialaren xehetasunak: zehaztu datu mota, kopurua, jatorria, zein den datuak eskuratzeko baimena eman duen etika batzordea.

Ikaslearen izen-abizenak:

Lanaren izenburua:
..... Ikasleak

honako konpromiso hauek hartu ditu:

- Laginak aipatutako lana egiteko baino ez erabiltzea.
- Datuen jatorria aipatzea lanarekin lotura duten dokumentu guztietan, argitalpenetan barne (halakorik balego).

Lekua eta data:
.....

BIBLIOGRAFIA

1. Von Elm, E., Altman, D. G., Egger, M., Pocock, S. J., Gøtzsche, P. C., & Vandenbroucke, J. P. (2008). "Declaración de la Iniciativa STROBE (Strengthening the Reporting of Observational studies in Epidemiology): directrices para la comunicación de estudios observacionales". *Revista española de salud pública*, 82, 251-259.
2. Giza Eskubideei eta Biomedikuntzari buruzko Hitzarmena (Oviedoko hitzarmena), 1997ko apirilaren 4koa (Espainiak 1999ko ekainaren 23an berretsia). Ikerketa Biomedikoari buruzko protokolo gehigarria (Estrasburgo 2005).
3. Biomedikuntzari eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsala, UNESCO, 2005eko urriaren 19koa.
4. 14/2007 LEGEA, uztailaren 3koa, Ikerketa Biomedikoari buruzkoa. BOE, 159. zk.; asteazkena, 2007ko uztailaren 4koa. 28826. or. <https://www.boe.es/eli/es/l/2007/07/03/14/dof/spa/pdf>
5. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf
6. UPV/EHUko ikasleak ikerketa-subjektu. https://www.ehu.eus/documents/2458096/3401856/08_EstudiantesInvestigacion_eu.pdf
7. Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin egindako ikerketen agertokiak <https://www.ehu.eus/documents/2458096/0/Cuaderno+CEID-Escenarios+de+investigaci%C3%B3n+CAST.pdf/b6f2c2bd-0be8-8cf8-330f-81a1eff757fc?t=1665405245881>
8. ¿QUÉ HACE QUE LA INVESTIGACIÓN CLÍNICA SEA ÉTICA? SIETE REQUISITOS ÉTICOS- https://www.bioeticacs.org/iceb/seleccion_temas/investigacionEnsayosClinicos/Emanuel_Siete_Requisitos_Eticos.pdf

Implicaciones Éticas en Actividades de Investigación Tutelada

(TFG, TFM y Tesis Doctoral)

Documento de recomendaciones

Comité de Ética para las Investigaciones con Seres Humanos, sus datos y sus muestras (CEISH-UPV/EHU)

Comité de Ética en Experimentación Animal (CEEA-UPV/EHU)

Comité de Ética en la Investigaciones con agentes biológicos y OMG (CEIAB-UPV/EHU)

Las recomendaciones han sido elaboradas por Susi Marcos Muñoz y revisadas el CEISH, Comité de Ética para las Investigaciones con Seres Humanos, sus datos o sus muestras

Leioa, enero 2024

ÍNDICE

PRESENTACIÓN	23
Siglas y acrónimos.....	24
Glosario.....	25
ACTIVIDADES DE INVESTIGACIÓN TUTELADA: CLASIFICACIÓN SEGÚN SUS IMPLICACIONES ÉTICAS	27
Recomendaciones generales para la redacción del TFG	27
ASPECTOS ÉTICOS EN LAS ACTIVIDADES DE INVESTIGACIÓN TUTELADA: UTILIZACIÓN DE SERES HUMANOS, SUS DATOS Y SUS MUESTRAS	28
ASPECTOS ÉTICOS EN LAS ACTIVIDADES DE INVESTIGACIÓN TUTELADA: UTILIZACIÓN DE ANIMALES DE EXPERIMENTACIÓN	32
ASPECTOS ÉTICOS EN LAS ACTIVIDADES DE INVESTIGACIÓN TUTELADA: MANIPULACIÓN DE AGENTES BIOLÓGICOS Y OMG	33
ANEXOS	34
Anexo I. Modelo de carta de la persona que dirige el proyecto evaluado por el CEEA/CEIAB en el que está incluida la AIT	35
Anexo II. Modelo de Visto Bueno de la persona que dirige o tutoriza la AIT	36
Anexo III. Hoja de Información	37
Anexo V. Modelo de Documento de Cesión de Material	38
Anexo VI. Modelo de Documento de Cesión de Datos	39
BIBLIOGRAFÍA	40

PRESENTACIÓN

Este documento pretende proporcionar información sobre las diferencias entre las diversas actividades de investigación tutelada (AIT) que se desarrollan en la Universidad del País Vasco UPV/EHU, en función del material utilizado, de las metodologías y herramientas aplicadas para su realización y sus implicaciones éticas, según supongan la participación de personas o la obtención de sus muestras o sus datos, la utilización de animales de experimentación o la manipulación de agentes biológicos y OMG (Organismos Modificados Genéticamente).

Se describirán los diferentes escenarios que requieren la evaluación de las AIT por los comités de ética de la Universidad del País Vasco UPV/EHU, así como la manera de plantear dicha solicitud de evaluación, haciendo hincapié en aquellos aspectos que debe describir el o la estudiante, detallando la forma de realizarla, y, aportando modelos de aquella documentación que pueda ser necesaria para la evaluación del trabajo tutelado, desde el punto de vista ético.

